

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera emateko eta etekinak maximizatzeko, bezeroak erakarri edota gure zerbitzuarekin zerikusia duten produktuak saltzen dituzten, beste enpresa batzuekin elkarlanean arituko gara.

Tokian tokiko unibertsitateekin harremanetan jarriko gara. Haiek publizitate bidez promozionatu dezakete gure zerbitzua eta guk ordea, unibertsitateetan ikasten duten ikasleei tarifa desberdina eskainiko diegu, hots, arrunta baino merkeagoa.

Xaboi enpresa desberdinekin ere ibiliko gara lanean. Makina saltzaile bat edukiko dugu lokal bakoitzean, xaboi mota desberdinak eskainiko dituenak. Webgunean ere hainbat iragarki jarriko ditugu. Hauek babesteagatik, diru kantitate bat jaso dugu haiengandik.